

JOSTAILU-TRANPA

Zauritutako haurra «oso larri» dago, ebakuntza egin ondoren

«Jokabide hau ez da justifikatzen, ezta terrorismoaren aurkako erreakzioa balitz ere», esan du Uriartek hileta elizkizunetan

Erredakzioa | DONOSTIA

Jokin Galarraga herenegun jostailu bat lehertutakoan zauritutako haurra «oso larri» zegoen oraindik atzo. Haurra Donostia Ospitaleko Pediatria saileko Zainketa Berezien Gelan zegoen, eta bere egoera «egonkorra» zen. Eduardo Perez Yarza unitate horren arduradunak goizean emandako mediku-agiariaren arabera, haurrak bere bizi-konstanteak «normal» zitu- en, «egonkortasun hemodinamikoarekin eta homeostasi normalarekin». Aireztapen mekanikoak lagunduta zegoen, lasagarriekin eta analgesikoekin.

Haurrari zortzi orduko ebakuntza egin zioten herenegun. Perez Yarza medikuak ez zuen aurreratu nahi izan zer ondorio izango diren haurraren osasunean. Euren helburu nagusia bizia salbatzea dela adierazi zuen,

IKUSMENA

Haurrak ikusmena galdu du, eta bere osasunaren bilakaera «luzerako» izango da

eta haren osasunaren bilakaera «luzerako» izango dela zehaztu zuen.

Begien leherketaren ondorioz, ikusmena galdu du haurrak. Horrez gain, ospitalean sartu zutenean lesio ugari zitu- en aurpegian, burmuinean objektu metalikoak sartuta eta eskuin eskuan lesio traumatiko handiak. Gainera aurpegiko ez- kerraldeko hezurra hautsita eta masa encefalikoa aterata zuen.

Haurraren osasuna aldatzeko denbora asko pasako dela esan zuten sendagileek, eta aldake- tarik ematen ez den arte ez du-



AMAIA ZABALO

Maritxu Eraunzetamurgilen senitartekoak haren aldeko hileta elizkizunen aurretik, atzo, Donostian.

tela mediku-agiri gehiago kale- ratuko jakinarazi zuten.

Jende ugari Eraunzetamurgilen aldeko hileta elizkizunetan

Jende ugari bildu zen atzo Do- nostiako Seminarioan, Maritxu Eraunzetamurgilen alde egin- dako hileta elizkizunetan. Meza Joan Maria Uriarte Donostiako Gotzainak eman zuen. Uriartek adierazi zuenez, «nire esku dago eta nire betebeharra da ter- rorismoaren gaitzespen mora- la egitea, egileak direnak direla eta halako jokabidea izateko arrazoiak direnak direla ere».

«Izua sorrarazteko hiltzea eta suntsitzea, kristautasunaren muina bete-betean zauritzen duen jokaera da», gaineratu zuen Donostiako Gotzainak.

Uriarteren iritziz, «nire egin- beharra terrorismoa gaitzestea da, hala jokatzeko dutenen giza- tasuna galdurazten duelako, herritarrek beldurtzen dituela- ko, gizarte demokratiko baten zutabeak kolokan ipintzen dituelako eta herrien etorkizu- na kinka larrian jartzen duela- ko». Uriartek adierazi duenez, «jokabide hau ez da inondik inora justifikatzen, ezta terro-

risimoaren aurkako erreakzio bat balitz ere».

Elizkizunetara agintari ugari azaldu ziren. Han izan ziren, besteak beste, Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozera- mailea, Mikel Legarda Jaurlari- tzako Barne sailburuordea, Mi- guel Arias Cañete Nekazaritza ministroa eta Odon Elorza Do- nostiako alkatea. Horrez gain, Maria San Gil Donostiako PPko zinegotzia, Batasuneko Mahai Nazionalako kide Imanol Ipa- rragirre eta Ainhoa Ozaeta eta LAB sindikatuko ordezkariak izan ziren.

MIKEL EZAMA TXIOKA TABERNAREN JABEA

«Gogorra izan da, baina egunero bezala lanean hasteko zain nago»

Garbiñe Olaizola | DONOSTIA

Mikel Ezama Txioka tabe- rnen jabeak autoa aurkitu eta le- hertu zen arte gertatutakoa azaldu dio EGUNKARIARI. Jato- rriari buruz ez duela inolako susmorik azaldu zuen, eta la- sai dagoela nabarmendu zuen.

■ Konta ieza dazazu nola jaso zenuten jostailua eta gerta- tutako guztia.

Ostiralean, suak ziren unean, pertsona batek komunean aurkitu zuen auto txiki bat eman zigun. Nik probatzen ibi- li nuen eskuetan. Une horre- tan, familia ezagun bat egon zen tabernan haur batekin, eta pentsatu nuen haiena izango zela. Zakarrontzira bota beha- rrean, gorde egin nuen. Auto

hori sukaldean egon da alde batetik bestera, inolako ga- rrantzirik eman gabe. Inor azaldu ez zenez, lanean ego- ten denari, Idoiari [haurraren izeba], igandean esan nion bo- ta egingo nuela zakarrontzira. Ilobari emango ziola esan zi- dan. Gorde egin genuen.

Astelehenean espreski hori eramatera etorri zen. Amona eta bi umeak utzi zituen auto- an. Jostailuzko jirafa bat eta autoa hartu, eta autora joan zen. Jirafa beste lagun batek eman zigun. Bere iloba zaha- rrenari jirafa eman zion eta txi- kienari autoa.

■ Ba al duzu susmorik nork utz zezakeen jostailua ta- bernan?

Guk ez dugu susmorik izan.



AMAIA ZABALO

Dirudienez norbaitek utzi zuen komunean. Nik ez dakit nor izan zitekeen manipulat- u zena. Beharbada politikare- kin zerikusirik ez duen perso- na bat izan daiteke, behar bada zerikusia duena. Ero asko da- bil ere bai, eta udan baten ba- tek proba bat egingo zuen. Os- tiraleko istiluak eta autoaren aurkikuntza batera gertatu zi- ren. Baina nik ezin dut esan is- tiluekin zerikusia zuenik. Ba-

ten batek utz zezakeen aparai- lua eta guri tokatu zaigu.

■ Nolakoa zen autoa? Zer itxura zuen?

Urtebeteko edo bi urteko haur batentzat balio zuen. Gorria eta urdina zen, Volkswagen *es- karabajo* motako auto txiki bat, hamabi zentimetro luze- rakoa eta hamar altuerakoa. Idoiak esan zidan gainean po- lizien autoek eramaten duten argi urdin bat zuela, azpian ta-

pa beltz bat eta pilentzako ta- pa txiki bat. Oso txikia eta sin- plea zen, normala.

■ Tabernak noizbait meha- txurik jaso al du?

Ez, ez. Guk ez dugu sekula ino- rekin arazorik izan, ez politika aldetik, ez bestela.

■ Bertsio ugari azaldu dira, atentatua dela, gerra zikina dela. Zer iruditzen zaizu guztia?

Herenegun Ertzaintza hitz egi- ten hasi baino lehenago kontu- garbitzea izan zitekeela zabal- du zuten telebista kate ba- tzuek. Zerbait esan behar zen eta esan zuten. Baina horrekin ez du zerikusirik. Ez dugu ezta zantzu txiki bat ere. Ez dugu inorekin arazorik izan. Taber- na lasaia da, gauean ez dugu lanik egiten, ez dugu liskarrik izaten. Ezin dut sinestu.

Ni oso lasai nago. Bi egunak gogorrak izan dira, baina egu- nero bezala lanean hasteko zain nago. Lehen bezala tabe- rna etorriko naiz, eta lanean segituko dut.